

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

Eskualdeko enpresentzako dirulaguntzak, langabeak kontratatzeke. Enplegua sustatzeko 2019ko programa, Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundua.

Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2019ko ekainaren 13an egindako ohiko bilkuran, eskualdeko (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaiako) enpresentzako dirulaguntzen deialdia eta oinarriak onartu ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak kontratatzeke.

Horrenbestez, oinarri horiek argitaratzen dira eta deialdia egiten da.

Zarautz, 2019ko uztailaren 15a.—Igor Iturain Ibarguren, Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakaria. (4834)

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZAK 2019. PERTSONA LANGABEAK KONTRATATZEKO UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN DIRULAGUNTZEN OINARRIAK (2019)

Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak 2019ko ekainaren 13an onartutako dirulaguntza deialdiaren oinarriak: eskualdeko enpresentzako dirulaguntzak, eskualdeko langabeak kontratatzeke.

Azken hiru-lau urteetan langabezia tasak behera egin du gure eskualdean, nahiz eta oraindik ere, krisialdiaren aurreko urteetako tasetatik urrun ibili. Hala ere, gizatalde batzuk beste batzuk baino zailtasun handiagoak dituzte lana lortzeko (emakumeek edo 45 urtetik gorakoek...).

Horrekin batera, krisialdiak eragin nabarmena izan du enpresen lehiakortasunean eta urte zailak igarotzen ari dira enpresa asko eta asko, merkatuaren eskakizunetara moldatzeko eta berritzeko ahaleginean.

Deialdi honen helburua, beraz, bikoitza da: alde batetik, enpresei laguntzea langileak kontratatzeke gastuei aurre egiten eta, ondorioz, lehiakortasuna hobetzen; eta, beste alde bestetik, enplegurako politika aktiboak indartu eta lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten gizataldeetako pertsonak kontratatzea saritzea. Hori lortzeko, hain zuzen ere, bideratu da eskualdeko enpresentzako dirulaguntza deialdi hau, eskualdeko langabeak kontrata ditzaten.

Oinarri hauek arautzen duten dirulaguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen du eta Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko du.

Deialdi hau kokatzen da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen 2019ko Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen barruan (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen dirulaguntza deialdia, enplegua sustatzeko toki ekintzetarako: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko ebazpena, *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2019-03-25). Ho-

MANCOMUNIDAD UROLA-KOSTA

Ayudas para las empresas de la comarca para la contratación de personas desempleadas. Programa de Fomento de Empleo 2019, financiado por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

La Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad Urola Kosta, en sesión ordinaria de fecha 13 de junio de 2019, ha aprobado las bases para la concesión de ayudas a las empresas de la comarca (Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaiá) para la contratación de personas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

Por la presente se publican las bases y se realiza la convocatoria.

Zarautz, a 15 de julio de 2019.—El presidente de la Mancomunidad Urola Kosta, Igor Iturain Ibarguren. (4834)

ACCIONES LOCALES DE PROMOCIÓN DE EMPLEO DE 2019. BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS DE LA MANCOMUNIDAD UROLA KOSTA PARA LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS DESEMPLEADAS (2019)

Bases de la convocatoria de ayudas destinadas a las empresas de la comarca para la contratación de personas desempleadas de la comarca, aprobadas por la Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad Urola Kosta el 13 de junio de 2019.

Una de las peores consecuencias sociales de la crisis ha sido la destrucción de empleo. A pesar de que durante los últimos tres años ha descendido la tasa de desempleo en nuestra comarca, seguimos estando lejos de las tasas de los años anteriores a la crisis y hay colectivos que tienen mayores dificultades de inserción en el mercado laboral (mujeres, personas mayores de 45 años...).

Asimismo, la crisis ha afectado a la competitividad del tejido empresarial de la comarca y muchas empresas se enfrentan a serias dificultades, si bien trabajan para innovar y adecuarse a las exigencias de un mercado cada vez más competitivo.

Esta convocatoria de ayudas, por lo tanto, persigue un doble objetivo: ayudar a las empresas a mejorar su competitividad para afrontar los costes de contratación y reforzar las políticas activas de empleo para facilitar la contratación de personas desempleadas con especiales dificultades de inserción. Por todo ello, se realiza la presente convocatoria de ayudas, dirigida a las empresas de la comarca para la contratación de personas desempleadas de la comarca.

El programa de ayudas regulado mediante las presentes bases está financiado por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo y será gestionado por la Mancomunidad Urola Kosta.

La presente convocatoria se enmarca dentro de las Acciones Locales de Promoción de Empleo de 2019 de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (convocatoria de ayudas de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo para acciones locales de promoción de empleo: Resolución del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de 28 de febrero de 2019; *Boletín Oficial del*

renbestez, dirulaguntzen deialdi honek bete behar ditu Lanbide-ren 2019ko deialdiak ezarritako baldintza guztiak.

Deialdi honetan lehentasuna izango dute emakumeak kontratatzen dituzten eskabideek (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko ebazpenak onartzen duen deialdiak ezartzen duena betetzeko), izan ere, 18 dirulaguntza gordeko dira emakumeak kontratatzen dituzten eskabideentzat eta gainerakoetan ere puntuazio handiagoa izango dute emakumeak kontratatzen dituzten eskabideek.

OINARRIAK

1. Deialdiaren helburua.

Deialdi honetako oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen helburua da laguntza ekonomikoak ematea eskualdeko (Aia, Getaria, Orío, Zarautz edo Zumaiako) enpresa txiki eta ertainei, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden eskualdeko pertsona langabeak kontratatzeko.

Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren kontratazioak hasiko dira 2019-03-26tik 2019-12-31ra bitartean eta diruz lagundutako epea amaituko da, beranduenez 2020ko ekainaren 30ean. Adibide gisa, diruz lagundutako epealdia 6 hilabetekoa baldin bada, 6 hilabete horiek aipatutako epealdiaren barruan egon behar dute, hau da 2019ko martxoaren 26tik 2020ko ekainaren 30era doan epealdiaren barruan.

2. Kontratazioak egiteko dirulaguntzak.

Deialdi honetan aurreikusitako aurrekontua honela banatuko da, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta kontratatutako pertsonaren profila kontuan hartuta:

Mota	Iraupena	Lanaldia %	Gizataldea	Kontratuak	Gordetako aurrekontua
A	6 hilabete	100	Zehatza	6	54.000,00
B	6 hilabete	100	Beste gizataldeak	16	96.000,00
C	6 hilabete	50	Beste gizataldeak	10	30.000,00
D	3 hilabete	100	Zehatza	4	18.000,00
E	3 hilabete	100	Beste gizataldeak	4	12.000,00
F	3 hilabete	50	Beste gizataldeak	3	4.500,00
Guztira				43	214.500,00 €

Tipo	Duración	Jornada %	Colectivo	Contratos	Presupuesto asignado
A	6 meses	100	Específico	6	54.000,00
B	6 meses	100	Otros colectivos	16	96.000,00
C	6 meses	50	Otros colectivos	10	30.000,00
D	3 meses	100	Específico	4	18.000,00
E	3 meses	100	Otros colectivos	4	12.000,00
F	3 meses	50	Otros colectivos	3	4.500,00
Total				43	214.500,00 €

Gizatalde zehatzak dira oinarrietako 6. atalean zehaztutako baldintzak betetzen dituztenak, hau da, DSBE prestazioa jasoz duten titularrak edo onuradunak; 35 urtetik beherako pertsonak; Luzaroko langabeak (luzaroko langabetzat joko dira kontratatu aurretiko 540 egunetan, gutxienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa inskribatuta egon eta lan-

País Vasco 25-03-2019), por lo que debe cumplir con los requisitos y condiciones establecidos por Lanbide en la citada convocatoria.

En la presente convocatoria de ayudas tendrán preferencia las solicitudes que contraten a mujeres (al objeto de cumplir con las exigencias establecidas en la Resolución del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo de 28 de febrero de 2019), por lo que 18 ayudas serán reservadas para solicitudes que contraten a mujeres y en la valoración del resto de solicitudes las solicitudes que contraten a mujeres serán valoradas con una puntuación mayor.

BASES

1. Objeto de la convocatoria.

El objetivo de las ayudas reguladas mediante las presentes bases es proporcionar apoyo económico para facilitar la contratación de personas desempleadas de la comarca e, inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por parte de las pequeñas y medianas empresas de la comarca (Aia, Getaria, Orío, Zarautz o Zumaia).

Las contrataciones objeto de las presentes ayudas se formalizarán del 26-03-2019 al 31-12-2019, y el periodo subvencionado finalizará como máximo el 30 de junio de 2020. A modo de ejemplo, en el caso de que el periodo subvencionado de la contratación sea de 6 meses, los 6 meses deberán transcurrir dentro del periodo que va del 26 de marzo de 2019 al 30 de junio de 2020.

2. Ayudas para la contratación.

Los fondos destinados a la presente convocatoria serán distribuidos de la siguiente forma, atendiendo a la duración y tipo de jornada de la contratación y al perfil de las personas contratadas:

Las personas que cumplan los requisitos establecidos en el apartado 6 de estas bases serán consideradas personas de colectivos específicos (el resto en el grupo de otros colectivos): Perceptores/as titulares o beneficiarios/as de RGI; Personas menores de 35 años; Personas desempleadas de larga duración (se entiende por personas desempleadas de larga dura-

gabezian 360 egun eman dutenak) eta 55 urtetik gorako pertsonak. Gainerakoak beste gizataldeak multzoan sartzen dira.

Halaber, dirulaguntzen deialdi honekin ez badira agortzen oinarri honetan ezarritako aurrekontu-atala eta kontratu kopuruak, Urola Kostako Udal Elkarteak beste deialdi bat egin ahal izango du eskabideak aurkezteko.

3. Araubidea.

Deialdi hau arautuko du honako araubideak:

1. Oinarri hauek, Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak 2019-06-13an onartutakoak: eskualdeko enpresentzako dirulaguntzak, eskualdeko langabeak kontratatzeak.

2. Ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 2019-03-25), enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2019ko ekitaldiko laguntzen deialdia egiten duena.

3. Ebazpena, 2019ko uztailaren 9koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Udal Elkarteari enplegua sustatzeko 2019ko tokiko ekintzetarako dirulaguntza ematen diona (R-19-LPE -14G espediente zenbakia).

4. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzko lege orokorra (*Estatuko Aldizkari Ofiziala* 18/11/2003).

5. 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, dirulaguntzen lege orokorra onartzen duen erregelamendua (*Estatuko Aldizkari Ofiziala* 2006/07/25).

4. Enpresa onuradunak eta baldintzak.

Deialdi honek aurreikusten dituen dirulaguntzen onuradun izango dira ondoko baldintza hauek betetzen dituzten enpresak:

1. Lantokia eta jarduera ekonomikoa Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde esparruan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaián) duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak izatea.

2. IAE-JEzN alta emanda egotea eta zerga horren betebeharrak egunean ordainduta izatea, betiere enpresaren jarduerak zerga hori ordaintzea eskatzen badu.

3. Administrazio edo erakunde publikoen edo txikitzat hartzen ez diren enpresen menpeko ez izatea edo horiek % 25 edo gehiagoko partehartzerik ez izatea.

4. Zerga betebeharrak (udalekoak nahiz foru ogasuneak) eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzea.

5. Dirulaguntza publikoak jasotzetik baztertuta ez egotea arau-hausteak egiteagatik.

6. Dirulaguntza bidez egindako kontratazioak enplegu-sorrera garbia eragitea enpresan, diruz lagunduak izan diren kontratuen bidez kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko 3 hiletan enpresak batez beste zuen plantilla osoarekiko. Horretarako, alderatuko dira aurreko hiru hilabeteetako batez beste plantilla eta kontratatutako pertsonaren kontratuaren hasierako datako plantilla. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko lanaldi osoan urte osoz lan egindako pertsonen kopuruak erabiliko dira. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, lan egindako orduen proportzioa hartuko da kontuan.

7. Enpresa baten eskabidea baztertu egingo da aurreko ekitaldietan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatutako enplegua sustatzeko planen barruan kontratatu zuen pertsona berbera kontratatzeo eskabidea egiten badu.

ción aquellas inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo durante los 540 días anteriores a la contratación, siempre que en ese periodo hayan estado en situación de desempleo al menos 360 días); y personas mayores de 55 años.

Asimismo, en el caso de que mediante la presente convocatoria no se agote la dotación presupuestaria y las contrataciones destinadas a la misma, la Mancomunidad podrá realizar una segunda convocatoria para la presentación de solicitudes.

3. Normativa reguladora.

La presente convocatoria se regulará mediante la siguiente normativa:

1. Las presentes bases, aprobadas mediante acuerdo de la Comisión Ejecutiva de la Mancomunidad de fecha 13-06-2019: Bases reguladoras de las ayudas para la contratación de personas desempleadas.

2. Resolución de 28 de febrero de 2019, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (*Boletín Oficial del País Vasco* 25-03-2019), por el que se publica la convocatoria de ayudas de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo para acciones locales de promoción de empleo de 2019.

3. Resolución de 9 de julio, del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por el que se otorga una ayuda a la Mancomunidad Urola Kosta para las acciones locales de promoción de empleo de 2019 (número expediente R-19-LPE -14G).

4. Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18/11/2003).

5. Real Decreto 887/2006, de 21 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 25/07/2006).

4. Empresas beneficiarias y requisitos.

Tendrán la consideración de entidades beneficiarias de las ayudas contempladas en las presentes bases aquellas que cumplan los siguientes requisitos:

1. Ser personas físicas o jurídicas, de naturaleza privada, con centro de trabajo y actividad económica en el ámbito territorial de la Mancomunidad Urola Kosta (Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaia).

2. Estar dado de alta en el IAE y cumplir con los pagos del citado impuesto, cuando la empresa lleve a cabo actividades sujetas al mismo.

3. No ser dependientes ni estar societariamente vinculadas o participadas en el 25 % o más a administraciones, entes u organismos públicos ni empresas no consideradas pequeñas.

4. Cumplir las obligaciones tributarias (de ámbito tanto municipal como foral) y de la Seguridad Social.

5. No haber sido excluido del acceso a subvenciones públicas por la comisión de infracciones.

6. Que la contratación suponga la creación neta de empleo sobre la plantilla media total existente en la empresa en los 3 meses inmediatamente anteriores a la incorporación de las personas contratadas. Para ello, se tomarán los datos del promedio de la plantilla de los 3 meses inmediatamente anteriores a la incorporación y la plantilla de la fecha de inicio del contrato. Para el cálculo del promedio de plantilla a este efecto se considerará a las personas trabajadoras por año a jornada completa. En el caso de personas trabajadoras con jornada parcial su cómputo será proporcional a las horas trabajadas.

7. Quedarán excluidas las solicitudes de empresas que contraten a la(s) misma(s) persona(s) contratada(s) en convocatorias anteriores por la empresa al amparo de los planes locales de empleo financiados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

8. Penalizazioa: eskabideen balorazioan penalizatu egingo dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzaturako enplegua sustatzeko planen barruan 2017 edo 2018an (edo bietan) langabeak kontratatzeke Urola Kostako Udal Elkartearen dirulaguntza eskuratu zuten enpresen eskabideak, oinarri hauetako 9. ataleko balorazioen irizpideen taulan agertzen denaren arabera.

5. *Kontratu motak eta kontratuen ezaugarriak.*

Diruz lagunduko diren kontratuek honako ezaugarriak izan behar dituzte:

1. Kontratuaren iraupena eta lanaldia: eskatu ahal izango dira honako iraupen eta lanaldia duten kontratuetarako laguntzak: iraupena 3 hilabete (gutxienez), lanaldia % 50 edo % 100.

Egin nahi den kontratuaren lanaldia % 100 baino gutxiago baldin bada (betiere % 50 edo handiagoa izan behar du), eskabidea sailkatuko da % 50eko lanaldiari dagokion dirulaguntzen multzoan. Halaber, iraupena 6 hilabete baino gutxiago baldin bada (betiere gutxienez 3 hilabetekoa izan behar du), eskabidea sailkatuko da 3 hilabeteko iraupena duten eskabideen multzoan.

2. Kontratuak edozein kontratazio-modalitatekoak izan daitezke. Hala ere, ez dira onartuko prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak.

3. Diruz lagun daitezkeen kontratuak izateko, kontratu horiek enplegu-sorrera garbia eragin behar dute, diruz lagunduko izan diren kontratuen bidez kontratatutako pertsonak enpresan sartu aurreko 3 hiletan enpresak batez beste zuen plantilla osoarekiko. Toki-erakundeak egiaztatu behar du hori horrela dela.

4. Ez da kontratatzeke dirulaguntzarik emango enpresaburuaren, enpresa-zuzendarien eta sozietateen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organotako kide diren pertsonen ezkontideak, ondorengoak eta gainerako senideak kontratatzeke, baldin eta haiekin bigarren mailara arteko odolkitasunezko edo afinitatezko harremana badute, ezta hasieran adierazitako pertsona horiek kontratatzeke ere.

5. Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren kontratazioak hasiko dira 2019-03-26tik 2019-12-31ra bitartean eta diruz lagundutako epea amaituko da, beranduez 2020ko ekainaren 30ean. Adibide gisa, diruz lagundutako epealdia 6 hilabetekoa baldin bada, 6 hilabete horiek aipaturako epealdiaren barruan egon behar dute, hau da 2019ko martxoaren 26tik 2020ko ekainaren 30era doan epealdiaren barruan. Dirulaguntza eskatu ahal izango da deialdi hau argitaratzeko unean dagoeneko formalizatuta dauden kontratuentzat (betiere 2019-03-26tik aurrera egin bada) edo oraindik egin gabe dauden kontratuentzat.

6. Kontratutako pertsona egongo da errolatuta Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian, oinarri hauek onartzeko datoren aurretik.

7. Kontratutako pertsonak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egongo dira enplegu eskatzaile gisa, langabezia egoeran, kontratua gauzatzen den unean.

8. Kontratutako pertsonak beren lana egingo dute (edo atxikita egongo dira) eskualdean (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian) kokatutako lantokietan.

9. Pertsona berari ezingo zaio kontratu bat baino gehiago egin deialdi honen dirulaguntzarekin (edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntzen finantzaketa jaso duten antzeko deialdien dirulaguntzarekin).

8. Penalización: las solicitudes de empresas que obtuvieron una ayuda de la Mancomunidad en las convocatorias de 2017 o 2018 (o en ambas) para la contratación de personas desempleadas dentro de los planes de promoción de empleo financiados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, serán penalizados, de acuerdo a lo estipulado en la tabla de los criterios de valoración del apartado 9 de estas bases.

5. *Topología y requisitos de los contratos.*

Las contrataciones objeto de las ayudas deberán tener las siguientes características:

1. Duración del contrato y jornada: se podrán solicitar ayudas para contrataciones que cumplan con los siguientes requisitos de duración y jornada: duración 3 meses (como mínimo), jornada 50 % o 100 %.

En el caso de contratos cuya jornada sea inferior al 100 % (en cualquier caso debe ser del 50 % o superior), la solicitud de ayuda se clasificará en el apartado de ayudas de media jornada. Asimismo, en el caso de contratos cuya duración sea inferior a los 6 meses (en cualquier caso debe ser de 3 meses como mínimo), la solicitud de ayuda se clasificará en el apartado de ayudas de 3 meses.

2. Los contratos podrán formalizarse mediante cualquier modalidad de contratación con excepción del contrato para la formación y el aprendizaje.

3. Para tener la consideración de subvencionables, las contrataciones deberán suponer creación neta de empleo sobre la plantilla media total existente en la empresa en los 3 meses inmediatamente anteriores a la incorporación de las personas cuyo contrato se subvencione. Esta circunstancia deberá ser certificada por la Entidad Local.

4. No serán objeto de subvención la contratación del cónyuge, descendientes y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado inclusive, con el/la empresario/a o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o sean miembros de los órganos de administración de las empresas que revistan la forma jurídica de sociedad, así como la que se produzca con estos últimos.

5. Las contrataciones objeto de las presentes ayudas se formalizarán del 26-03-2019 al 31-12-2019, y el periodo subvencionado finalizará como máximo el 30 de junio de 2020. A modo de ejemplo, en el caso de que el periodo subvencionado de la contratación sea de 6 meses, los 6 meses deberán transcurrir dentro del periodo que va del 26 de marzo de 2019 al 30 de junio de 2020. Asimismo, se podrán solicitar ayudas para contrataciones formalizadas antes de la publicación de la presente convocatoria (siempre que hayan sido formalizadas a partir del 26-03-2019) o para contrataciones a formalizar tras la misma.

6. La persona contratada debe estar empadronada en Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaia antes de la fecha de aprobación de las presentes bases.

7. Las personas contratadas estarán inscritas como demandantes de empleo en situación de desempleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, en el momento de formalización del contrato.

8. Las personas contratadas desempeñarán sus funciones o estarán adscritas a centros de trabajo ubicados en la comarca (Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaia).

9. No se podrá formalizar más de un contrato con la misma persona al amparo de la presente convocatoria (o convocatorias similares financiadas a través de las ayudas para las acciones locales de empleo de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo).

6. *Dirulaguntzen zenbatekoak.*

Dirulaguntzen kopuruak honakoak izango dira, gehienez, kasu bakoitzean:

6. *Dotación de las ayudas.*

El importe máximo de las ayudas a otorgar será el siguiente en cada caso:

Mota	Kontratuaren iraupena	Kontratuaren lanaldia %	Kontratutako pertsonaren gizataldea	Dirulaguntza	Gehienez
A	6 hilabete gutxienez	100	Zehatza	9.000,00	Lan-kostuen % 100 (lansaria eta GS)
B	6 hilabete gutxienez	100	Besteak	6.000,00	Lan-kostuen % 75 (lansaria eta GS)
C	6 hilabete gutxienez	50	Besteak	3.000,00	Lan-kostuen % 75 (lansaria eta GS)
D	3 hilabete gutxienez	100	Zehatza	4.500,00	Lan-kostuen % 100 (lansaria eta GS)
E	3 hilabete gutxienez	100	Besteak	3.000,00	Lan-kostuen % 75 (lansaria eta GS)
F	3 hilabete gutxienez	50	Besteak	1.500,00	Lan-kostuen % 75 (lansaria eta GS)

Tipo	Duración contrato	% Jornada contrato	Colectivo al que pertenece la persona contratada	Ayuda	Como máximo
A	6 meses mínimo	100	Específico	9.000,00	100 % de los costes laborales (salariales y SC)
B	6 meses mínimo	100	Otros	6.000,00	75 % de los costes laborales (salariales y SC)
C	6 meses mínimo	50	Otros	3.000,00	75 % de los costes laborales (salariales y SC)
D	3 meses mínimo	100	Específico	4.500,00	100 % de los costes laborales (salariales y SC)
E	3 meses mínimo	100	Otros	3.000,00	75 % de los costes laborales (salariales y SC)
F	3 meses mínimo	50	Otros	1.500,00	75 % de los costes laborales (salariales y SC)

Gizatalde zehatzetako pertsonatzat hartuko dira honako lau baldintza hauetako bat betetzen dutenak:

1. DSBE prestazioa jasotzen duten titularrak edo onuradunak.
2. 35 urtetik beherako pertsonak.
3. Luzaroko langabeak. Luzaroko langabetzat joko dira kontratatu aurreko 540 egunetan, gutxienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta egon eta langabezian 360 egun eman dutenak.

4. 55 urtetik gorako pertsonak.

Baldintza horietatik bat ere betetzen ez duten pertsonak beste gizataldeak izeneko multzoan sartuko dira.

Eskatzaille bakoitzak gehienez ere 2 kontratutarako laguntzak eskatu ahal izango ditu. Horrela egiten badu, bigarren kontraturako dirulaguntza emango zaio eskabide bakarra egin duten eskatzaille guztiei eman ondoren.

7. *Eskaerak eta aurkeztu behar diren dokumentuak.*

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen eskaera egiteko honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

1. Eskabidea, A eranskinaren arabera egina, behar bezala beteta. A eranskinak honako dokumentuak ditu: eskabidea (A1),

Se considerarán personas pertenecientes a colectivos específicos a aquellas que cumplan una de estas cuatro características:

1. Perceptores/as titulares o beneficiarios/as de RGI.
2. Personas menores de 35 años.
3. Personas desempleadas de larga duración. Se entiende por personas desempleadas de larga duración aquellas inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo durante los 540 días anteriores a la contratación, siempre que en ese periodo hayan estado en situación de desempleo al menos 360 días.
4. Personas mayores de 55 años.

Las personas que no cumplan ninguna de estas características entrarán en el grupo de otros colectivos.

Cada solicitante podrá solicitar ayudas para un máximo de 2 contrataciones, en cuyo caso, la segunda de las ayudas se otorgará después de otorgar ayudas a las empresas solicitantes de una única ayuda.

7. *Solicitudes y documentación a presentar.*

Para realizar la solicitud de las ayudas a las que se refiere esta convocatoria deberá presentarse la siguiente documentación:

1. Impreso de solicitud conforme al anexo A, debidamente cumplimentado. El anexo A incluye la solicitud (A1), los datos de

kontratazioaren datuak (A2) eta erantzukizun adierazpena (A3). A2 eranskin bat aurkeztuko da eskatutako kontratazio bakoitzeko.

2. Lege-ordezkararen NANren fotokopia.

3. Enpresa eskatzailearen IFZ txartelaren fotokopia.

Horrez gain, Balorazio Mahaiak erabaki ahal izango du eskatzaileei bestelako dokumenturen bat aurkezteko eskatzea, eskabidea baloratzeko beharrezkoa dela iruditzen baldin bazaio.

Urola Kostako Udal Elkarteak zuzenean egiaztatuko ditu honako datuak, dagokion administrazio publikoarekin harremanetan jarrita:

– Enpresa eskatzailea IAE-JEZren alta emanda egotea.

– Enpresa eskatzaileak zerga betebeharrak (udal zergak, foru ogasunen zergak) eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean ordainduta edukitzea.

– Kontratutako pertsonaren erroldatze datuak (Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian erroldatuta egotea eta data).

– Kontratutako pertsonaren egoera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan (enplegu eskatzailea, langabezia egoeran).

– Kontratutako pertsona gizatalde zehatzkoa izatea.

– Enpresa berberak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatutako enplegua sustatzeko planen barruan aurreko ekitaldietan kontratatutako pertsona berbera ez kontratzea.

8. *Deialdia eta eskabideak aurkezteko epea eta lekua.*

Deialdia eta oinarriak argitaratuko dira Udal Elkartearen webgunean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan webgunean eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Udal Elkartearen webgunean argitaratuko dira oinarriak eta eskabidea nahiz zuriaketak egiteko eredu eta eranskinak, esteka honetan: <http://www.urolakosta.eus/eu/dirulaguntzak>.

Horrez gain, deialdiari buruzko galdera eta informazio-eskaerak telefonoz (943.890.808) edo emailuz (harrera@urolakosta.eus) egin ahal izango dira.

– Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.

Eskabideak aurkeztu behar dira Urola Kostako Udal Elkartearen erregistro orokorrean (Urdeneta bidea 6, Abendaño industrialdea, 20800 Zarautz), astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdia Udal Elkartearen webgunean argitaratu eta hurrengo egunean (deialdia argitaratzeko aurreikusitako data da 2019-06-13) eta amaituko da 2019ko irailaren 20an.

Eskabidea ez bada aurkezten behar bezala edo ez badira aurkezten zazpigarren oinarrian zehaztuta dauden dokumentuak, eskatzaileari 10 laneguneko epea emango zaio eskabidea osatu edo aurkeztu behar diren dokumentuak aurkezteko. Epe horretan eskabidea osatzen ez badu eskabidea baztertu egingo da. Administrazioak eskabidea baztertzeko ebazpena egingo du berari eta jakinarazi egingo dio interesdunari.

Eskabidea aurkezteko nean dirulaguntzaren objektu den kontratua dagoeneko eginda baldin badago, eskabidearekin batera lehen zuriaketa aurkeztuko da (kontratua egin izanaren zuriaketa, oinarri hauetako 14.1 atalean adierazitako dokumentuak).

la contratación (A2) y la declaración responsable (A3). Se presentará un anexo A2 por cada contratación solicitada.

2. Fotocopia del DNI de la representación legal de la empresa.

3. Fotocopia del CIF de la empresa.

Asimismo, la Mesa de Valoración podrá solicitar la presentación de otra documentación que estime necesaria para la valoración y resolución de la solicitud.

La Mancomunidad realizará la comprobación de los siguientes datos directamente ante las administraciones públicas en cuestión:

– Situación de alta en el IAE de la empresa solicitante.

– Situación de estar al corriente de las obligaciones tributarias (de ámbito municipal y foral) y de la Seguridad Social.

– Situación de empadronamiento (en Aia, Getaria, Orio, Zarautz o Zumaia) de la persona contratada (empadronamiento y fecha).

– Situación de inscripción de la persona contratada en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (demandante de empleo en desempleo).

– Cumplimiento de los requisitos de pertenencia al colectivo específico.

– Cumplimiento del requisito por parte de la empresa solicitante de no contratar a la misma persona contratada en convocatorias anteriores al amparo de los planes locales de empleo financiados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

8. *Convocatoria y plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

La convocatoria y sus bases se publicarán en la web de la Mancomunidad Urola Kosta, en la web de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

En la web de la Mancomunidad Urola Kosta se publicarán, además de las bases, los modelos de solicitud y los anexos para las justificaciones, en el siguiente enlace: <http://www.urolakosta.eus/es/subvenciones>.

Asimismo, las consultas relacionadas con la convocatoria se atenderán por teléfono (943.890.808) o mediante email (harrera@urolakosta.eus).

– Lugar y plazo de presentación de solicitudes.

Las solicitudes se presentarán en el Registro General de la Mancomunidad Urola Kosta (Urdeneta bidea 6, Polígono Abendaño, 20800 Zarautz), de lunes a viernes de 8:00 a 15:00.

El plazo para presentar las solicitudes comenzará el día siguiente de la publicación de la convocatoria y sus bases en la web de la Mancomunidad (previsiblemente el 13-06-2019) y finalizará el 20 de septiembre de 2019.

Si la solicitud no viniera cumplimentada en todos sus términos, o no fuera acompañada de la documentación preceptiva relacionada en la base séptima, se requerirá a la entidad solicitante para que, en el plazo de 10 días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se tendrá por desistida su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esa solicitud, así como a notificarla.

En el caso de que en el momento de la presentación de la solicitud la contratación objeto de la misma esté formalizado, se presentará junto con la solicitud la justificación de haber realizado la contratación, presentando la documentación que se señala en el apartado 14.1 de estas bases.

9. Komunikazioak.

Eskabidea osatzeko errekerimendua, dirulaguntzak ebazteko jakinarazpena eta zuriketa eta ordainketen inguruko komunikazioak posta elektronikoen bidez jakinaraziko zaizkio eska-tzaile edo onuradunari (eskabidean adierazten duen posta elek-tronikoko helbidera bidaliko zaizkio). Halaber, onuradunek posta elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango dituzte eska-bidea osatzeko dokumentuak nahiz zuriketak egiteko eranskin eta dokumentuak.

10. Dirulaguntzak emateko prozedura.

Dirulaguntzak emango dira lehiaketa bidez, oinarri honetan ezartzen diren prozedura eta balorazio irizpideak aplikatuta (ba-lorazioan lortutako puntuen arabera), hari- eta deialdi honetako bigarren oinarrian ezarritako diru-kopurua edo eta kontratu ko-purua agortu arte.

Lehiaketatik baztertu egingo dira oinarriotan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak.

* Kontratutako pertsonaren gizataldea eta generoa.

Eskabideen balorazioan bereiz ebatziko dira deialdi honen bigarren oinarrian zehaztutako kontratazio motak, hala nola, alde batetik, gizatalde zehaztutako gordetakoak eta, beste alde batetik, beste gizataldeentzat gordetakoak.

Multzo bakoitzean dirulaguntzak emango dira balorazioan lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera.

Nolanahi ere den, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zu-zendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko ebazpenak ezar-tzen duena betetzeko, deialdi honetan 18 dirulaguntza gordeko dira emakumeak kontratatzen dituzten eskabideentzat.

Aurreko paragrafoetan zehaztutakoa egiteko honako proze-durari jarraituko zaio:

– Eskabideak multzotan banatuko dira, kontratuaren lanaldiaren eta iraupenaren arabera eta kontratatuko den pertso-naren gizataldearen arabera.

– Egin nahi den kontratuaren lanaldia % 100 baino gutxiago baldin bada (betiere % 50 edo handiagoa izan behar du), eska-bidea sailkatuko da % 50eko lanaldiari dagokion dirulaguntzen multzoan. Halaber, iraupena 6 hilabete baino gutxiago baldin bada (betiere gutxienez 3 hilabetekoa izan behar du), eskabidea sailkatuko da 3 hilabeteko iraupena duten eskabideen multzo-an.

– Eskabide guztiak baloratuko dira aurrerago datorren tau-lan zehazten diren irizpideen arabera, bakoitza dagokion mota-ren multzoan.

– Emakumeak kontratatzen dituzten eskabideen artean puntuaziorik handiena lortzen duten lehen 18 eskabideei dirulaguntza emango zaie. Ondoren, kontratatutako pertsonaren ge-neroa kontuan hartu gabe, puntuaziorik handiena duten kontra-tazioei emango zaie dirulaguntza, lortutako puntuazioaren hu-rrenkeran.

– Gizatalde zehatzak (oinarri hauen 6. baldintzan daude zehaztuta gizatalde zehatzak) kontratatzen dituzten eskabideen artean puntuaziorik handiena lortzen duten lehen 10 eskabi-deei dirulaguntza emango zaie. Ondoren, irizpide hau kontuan hartu gabe, puntuaziorik handiena duten kontratazioei emango zaie dirulaguntza, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

– Mota bakoitzeko kontratu kopurua agortu eta dirulagun-tzarik eskuratu gabe geratzen diren eskabideekin zerranda egingo da, eskuratutako puntuen hurrenkeraren arabera (puntu gehien dituenetik gutxien dituenara). Dirulaguntza eskuratu duen onuradun batek ez baditu ezarritako baldintzak bete-tzen (ez badu zehaztutako epean hitzemandako kontratazioerik egin edo kontratazio horrek ez baditu eskabidean adierazitako baldintzak bete) eta dirulaguntza bertan behera geratzen bada, zerranda horretara joko da eta dirulaguntza emango zaio dirula-

9. Comunicaciones.

Las comunicaciones relativas a la subsanación de docu-mentación, a la resolución y aprobación de las ayudas y a las justificaciones y pagos de las mismas se remitirán a la persona solicitante o beneficiaria mediante correo electrónico (a la direc-ción señalada en su solicitud). Asimismo, las personas solici-tantes o beneficiarias podrán remitir por el mismo medio la docu-mentación requerida para la subsanación de la solicitud y los anexos y documentación de las justificaciones de las ayudas.

10. Procedimiento para otorgar las ayudas.

